



Maiatzaren 17a, "LGTBI fobiaren kontrako nazioarteko eguna"

Hezkuntza komunitate osoari:

Maiatzaren 17an ospatzen da LGTBI fobiaren kontrako Nazioarteko eguna¹. Egun hori oso aproposa da ikastetxeetan aniztasun afektibo sexualari buruzko gogoeta egiteko eta prebentzio neurriak hartzeko beharrezana planteatzeko; izan ere, sexu edo genero identitatea aukeratzeko pertsona guztiok dugun askatasunari eraso egiten dion edozein iritzi, jarrera edo jokabide lesbofobiko, homofobiko, transfobiko edo bifobikoren aurka jo behar dugu.

Hezkuntza Sailak ere egun horrekin bat eginez, ahalegina egin nahi du, zuekin batera, LGTBI fobiarik izango ez duen gizartea eraikitzen, non edozein pertsonak, sexu identitatearen kausaz baztertua sentitu gabe, nola jardun eta nola bizi erabakiko duten.

II. Hezkidetzatza-planak, berdintasunaren eta tratatu onaren bidean jasotzen duen eran, "Ikastxeak espazio egokiak dira, ikasle guztiak dauden sexu-identitateen aniztasunarekiko errespetuan sozializatzen".

Badakigu gero eta ikastetxe gehiagotan ari direla gai hau lantzen eta, horrez gain, Maiatzaren 17a dela eta, ekimen ugari bultzatzen direla. Halaber, jakin badakigu, ikastetxe askok asmoa erakutsi dutela antzeko egitasmoei ekiteko.

Beraz, laguntza eskaini nahirik, **BAI, erreferenteak dauzkagu** izeneko proposamen didaktikoa jarri dugu denon esku (Helbide honetan topatuko dituzue material guztiak:

<http://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/hezkuntza-saila/>

Gutun honen bidez, aurreiritziak gainditzeko eta elkarbizitza sustatzeko duzuen inplikazioa eskertu nahi dizuegu. Horri esker, dudarik gabe, berdintasunean oinarritutako pertsonen arteko erlazio atseginagoak garatzen dira eta.

Egun betea izango duzuelakoan, agur bero bat.

Cristina Uriarte Toledo

Hezkuntza Sailburua

¹ **Homofobiaren eta Transfobiaren kontrako nazioarteko eguna** gogoratzen da egun horretan. Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) 1990eko maiatzaren 17an hain zuzen ere, zientziarekin eta arrazoiarekin bat, homosexualitatea eta transexualitatea buru-gaixotasunen zerrendatik atera zituen, gizartean zeuden aurreiritzi historikoak gaindituz.